

# itsasondo<sup>2.0</sup>

Herriko Aldizkaria ((( 25. zk ))) Ekaina-Iraila 2014



## Gure esku dago

Itsasondo, musikari bikainen kabi  
Ibilbidea: Olaberria-Lazkao-Olaberria  
Ikasturte amaiera, urte bat angazkitan



**U**daberrian gaude, odolak bor-bor egin eta natura negu luzetik itzartzen den garaian. Euskal Herria ere udaberri syndromeak sakonean ukitu duela dirudi; indar eta gogo berri batek sakon astindu du, eta herritarrok, aspaldiko partez, ilusioz eta itxaropenez begiratzen diogu gure herriaren etorkizunari. Sinistu behar dugu, Euskal Herriko herritar guztiok elkar hartzen badugu, ez dagoela herri hau bere bidean geldituko duenik. Gure Esku Dago, denon artean bide berri bat egitera goaz, eutsi goiari.

Etorkizunera begira jarri gara, baina ezin ahaztu, izan direlako garela, eta elkarriketaren txokoa, Nicolas Iturrioz eta Joxe Otegi txistulariak izan ditugu solaskide. Beraiei jasotakoak altxor moduan gordeko ditugu Itsasondoko historia txikian. Bide batez, dihoakie itsasondoa guztion esker ona urte hauetan guztietan eginiko lan eskergarengatik.

Aldizkarian murgilduta, ez zaizkigu gai interesgarriak falta. Udaleko berriei herriko azken notizien jakitun izango zarete; ongizate arloan ere, herritarrek dituzuen zerbitzu eta aukeren jakitun izatea nahi dugu. Aranzadikoek ere Isats-aren inguruko artikulu interesgarria idatzi dute.

Eta ikasturtea amaitzen ari den honetan, haur eskola, ludoteka eta gazteek argazki moduan erakutsi nahi izan digute aurten egin eta ikasitako guztia. Eskola ere herriko txikiei irakaskuntza eredu pedagogikoa eskaintzeko eraldaketa garaian sartu da. Ez dago dudarik Itsasondoko etorkizuna duela.

Betiko atalek ere ez digute huts egin: lore-zaintza, errezeta, informatika, liburutegia, ibilbidea, inkesta eta bidean zerrendatik kanpo utzi ditugun hainbat gai interesgarri. 25. ale honetan murgildu eta zuk zeuk topa ditzazun gonbidatu nahi zaitugu. ■



## Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak**
- 04-05. **Eskola:** Urkipe eskola aldaketarako prest!
- 06-07. **Haureskola:** 2013-2014 ikasturtearen balantzea
- 08-09. **Gazteria eta ludoteka**
- 10-11. **Hondakinak:** Urtebeteko balantzea
- 12-13. **Agenda 21:** Salmenta teknikak, erosleri tentazioa sortzeko prest
- 14-18. **Elkarrizketa:** Nikolas Iturrioz eta Joxe Otegi
- 19. **Jubilatuak:** Jubilatutako elkarte txangoak
- 20. **Gizarte ongizatea:** Izeba proiektua
- 21. **Kale inkesta:** Amets bat, izan nun...
- 22. **Gazte asanblada:** Selektibitateari ez!
- 23. **Auzolan:** Proiektu berriak begi bistan
- 24. **Informatika:** Ama, nik handitan Youtuberra izan nahi dut
- 25. **Aranzadi:** Itsasondo, isats-ondo?
- 26-27. **Ibilbidea:** Olaberria-Lazkao-Olaberria
- 28-29. **Hemeroteka**
- 30. **Lorezaintza eta errezeta**
- 31. **Liburuaren txokoa**
- 32. **Oharrak. Kultur agenda**

## Sarrerako bertsoak

Doinua: *Esnelsalzailearena*

*Herriko txistulari  
Joxe ta Nikolas  
eresiak joaz  
bakterrak esnatuaz  
kalean badoaz,  
gazteak azterketak  
egiten ganoraz,  
Aranzadi badator  
ekarpen sendoaz  
berriari isatsa  
pasatu asmoaz. (bis)*

*Urkipe eskolako  
metodo berria  
enakargarria  
pala jokatzeko prest  
da gela erdia,  
ikasturte amaieran  
festa egarria  
goxatu nahi badugu  
gure etxarria  
euskarazko mintzoa  
da freskagarria. (bis)*

*Ongizateak badu  
traba eta kaka  
buruhauste franko  
amets bati lekua  
utzi behar, kuantito!  
Bizikletak garbitu  
sanoa delako,  
txukunketa lanetan  
murgildu beharko...  
beraz, izena eman  
auzolanerako. (bis)*

# Udal erabakiak

**Urtariletik ekaina bitarte udalean landu diren gaien eta aurrera atera diren ekintzen azalpena egingo dizuegu jarraian:**

## Udal batzarra

Egin diren batzarretan tratatu diren gaien artean honako hauek dira garrantzitsuenak:

Hutsik geratutako zinegotzi karguak bete dira: Unai Aldasorok zinegotzi kargua hartu zuen martxoaren 3ko batzarrean eta Iñaki Aizpuruk maiatzaren 12an egindako batzarrean.

## Udala era honetan osaturik dago:

Alkatea: Asier Garro

Zinegotziak: Erkuden Mendizabal, Emma Arrondo, Ekaitz Arruti, Kike Fernandez, Unai Aldasoro eta Iñaki Aizpuru.

Itsasondoko Agenda 21 plana eta bidaragarritasun txostena onartu ziren martxoaren 3ko batzarrean.

Euskararen Plan Estrategikoa onartu da apirilaren 14an egindako batzarrean.

Udaletxe berriko aretoen erabilera arautzeko ordenantza onartu eta jendarean jarri da, herritarrek ikusi eta alegazioak jartzeko aukera izan dezaten.

Toki Goxo inguruko urbanizazio lanak esleitu zaizkio Lurkide Hondalanak S.L. enpresari. Lanak uztaila-iraila bitartean hasiko direla aurreikusten da.

Udaleko Ongizateko lan taldeak proposatuta gero eta sarriago gertatzen ari diren etxe kaleratze kasuei aurre egiteko "Etxegabeteen aurrean udal protokoloa" onartu da.

Obra baimenatarako hiru eskaera onartu dira.

Baimenik gabe egindako edo baimenaren baldintzak errespetatu ez direlako espedienteen erabakiak hartu dira.

Maite Lasa udal langilea abenduaren 31 bitarte Aldundiko Izfe enpresan koordinatzaile arituko denez, bere ordezkapena egiteko frogak egin ondoren, Jose Luis Aranburu Arzak lortu ditu puntu gehien, eta kontratatu egin dugu.

Udalak tasen ordainketan (zaborra eta ura) laguntzak emateko onartutako araudien arabera lehen laguntza espediente onartu da.

Ibilgailuen gaineko zergaren arabera salbuespen espediente bat onartu da.

2013ko aurrekontuaren likidazioa eta kontu orokorrak onartu dira.

## Mozioak

Udalak azken hilabeteetan egindako batzarretan zenbait mozio onartu ditu. Hona hemen horien berri:

- Emakumeen autonomiaren eta erabakitze eskubidearen defentsaren aldeko mozioa onartu zen martxoaren 23an egindako batzarrean.
- Apirilaren 14an egindako batzarrean Bilduk proposatutako "Euskal Herritarrek gara eta ozenki adierazi nahi dugu" izenburua zuen mozioa onartu zen.
- ESAIT elkarteak proposatutako mozioa onartu da. Mozio horretan, euskal selekzioek ofizialki nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehiatzeko aukera izatea aldarrikatzen da.
- Euskal Kutxen etorkizunari buruz Bilduk proposatutako mozioa onartu da.

## Hitzarmenak

Udalak zenbait entitatekin hitzarmenak sinatu ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin, informazioa elkarren artean lagatzeari buruzkoa.
- Aldundiko Itten enpresa publikoarekin, udal kudeaketetan lankidetzan jarduteko.
- Foru Aldundiarekin, etxez etxeko laguntza zerbitzuko mendeakoen arreta sistema finantziatzeko.

## Eskatutako diru-laguntza berriak

Kultur ekitaldiak finantzatzeko diru-laguntza eskatu zaio Foru Aldundiari, eta 3.536€ ematea erabaki dute.

Foru Aldundiak Tokiko energiaren aurrerenerako deialdia egin du, eta Itsasondoko argiteri publikoko sarearen auditoria eta aldaketa lanetarako laguntza eskatu da.

Foru Aldundiak 2014ko Agenda 21eko deialdia egin du, eta diru-laguntza eskatu da San Juango saneamendu sarea egokitze eta Ingurune Naturalaren kontserbazio ekimenak 2014-2015 proiektua lantzeko.

Foru Aldundiari haur, nerabe eta gazteen planak eta ekintzak aurrera eramateko.

Foru Aldundiari Itsasondo 2.0 aldizkariaren argitalpen gastuak kubritzeko.

Eusko Jaurlaritzari Herri eskolan egin beharreko zenbait obra finantzatzeko.

## Jasotako diru-laguntzen informazioa

Enplegua bultzatzeko Aldundiak 2. deialdia egin zuenez, 2. langilea kontratatzeko deialdia eta frogak egin ondoren, langile berria apirilaren 1ean hasi zen lanean. Abuztuaren 31 bitarteko kontratua izango du.

Irisgarritasun plana berritzeko 9.400 €ko laguntza jaso da.

Herri bideetan 2013ko neguan eta udaberrian izandako euriteen ondorioz, Itsasondoko gertatutako luiziak konpontzeko 14.036,19€ko laguntza eman du Foru Aldundiak (%48).

Tokiko inbertsioak bultzatzeko programan "Toki goxo ingurua birgaitzeko" 35.272 €ko laguntza jaso da (%91).

Foru Aldundiari Tokiko energiaren aurrerpena eta eraginkortasun energetikaren programan egindako deialdian Agarreko Argiteri Publikoa hobetzeko 381,08€ko laguntza jaso da (%18,5).

Ingurune Naturala eta Landa eremueen kontserbazio lanetarako (2013-2015 planerako) diru-laguntza jaso da, 27.034,07€.

## Bidegorriaren obra

Itsasondo-Ordizia bidegorriaren obra AMENABAR enpresari esleitu dio Foru Aldundiak. Makinak eta materialak herrian dituzte dagoeneko eta lanak Ibares aldetik San Juan aldera eta herri aldera aldi berean hasiko dituztela jakinarazi digute. ■





# Urkipeko I. Pala Festa

**Aurten Urkipeko I. Pala festa antolatu dugu Itsasondoko goiko frontoian.**

**E**skolan, aspaldian genuen buruan goiko frontoiari erabilpena ematen hasi beharra genuela. Eskolak kirolerako eta mugimendurako ez ditu espazio egokiak, eta frontoia bertan izanda, aukera polita iruditu zitzaigun pala partidak antolatzea. Gainera, argi zegoen itsasondorrek beheko frontoia egin gabe zegoenean goiko frontoi hau erabiliko zenutela; eta orain, berriz, aparkaleku bezala baino ez da erabiltzen.

Frontoiaren ezaugarriak bereziak direnez, arauak ere bereziak dira, eta guraso bat etorri zen arau horien berri ematera. Horrela heldu diogu berriz ere etenda zegoen transmisioari.

Horrela, aurtengo maiatzean hasi dugu gure pala festa. Maiatzaren 12an jokatu ziren lehenengo partidak, jolastorduak arobetxatuz. Ostiral arratsaldean, aldiz, 16:00etan jarraitu genuen, eta eskolako umeen ondoren gazte-lekuko gazteen txanda izan zen. Aipatzekoa da ostiral arratsalde horretan gazteek tabernatxoa jarri zutela goiko frontoian, eta partidak ikusi bitartean pintxoak jateko aukera izan genuen.

Aurtengoa eta gero, ziur gaude ez dela izango azkena, eta datorren ikasturtean II. Pala festa izango dugula.

Hemendik, zoriandu nahi ditugu jokalaria guztiak, kiroltasun handiz jokatu dutelako.

**DENOK IZAN ZARETE TXAPELDUNAK, KOADRILA! ■**



# Urkipe eskola aldaketarako prest!

*Haurreskolako haur hauek zentzumen guztiak martxan jarri dituzte: dastamena, ikusmena, ukimena... gehi Amaiaren begirada.*



2013ko ekainean, paradigma aldaketa baten beharra proposatu zuten eskola txikietako arduradun Mikel Goñik eta Elena Laizek. Hausnarteketa bultzatu eta eskolan honetan oinarritu ginen:

1. Gure eskolen arimara jo beharra, gure errealitatera egokituz. Hau, da, eskola txikia, herri txikia, gertua, aukeraz beterikoa.
2. Haurra guztiaren erdigunea da, irakaslearen rol aldaketa eman beharra. ADIN ANIZTASUNA irakasleentzako aberastasun iturri eta irakasleentzako erronka. Erronka berriz ere aberatsa, non irakasleak teknika eta metodologi ezberdinak bilatu behar dituen, GUZTIENTZAKO ESKOLA sortu ahal izateko.
3. Eskola konpentsailea, eskola publikoa izan behar du; haurren herriaren filosofian barneratu eta haurren eskubideetan bustiz.
4. Herria tailerra bihurtzeko nahia. Honekin herritar sentitzeko aukera. Herritar bezala gure haurrak aukeratzeko, eskatzeko bizitzeko... aukera eman nahi diegu. Horretarako, ALKATEAREN nahiz udaletxeko ORDEZKARIAREN papera ezinbesteko ikusten da.
5. Horrekin lotuta, udaletxeko haur eta gazte suspertzaileek eta eskolako irakasleek herriko erakunde ezberdinen artean "HAURREN HERRIA" taldea sortu zuten, non, Haur Eskola, eskolako irakasleak eta gurasoak eta udaletxeko ordezkariak barnean dauden. Horrela, gure proiektua osotasunean gauzatzeko dugu eta elkarlanean ari-tuko gara.

## Hurrengo urratsa, nola eman?

Eskola txikiak Tonnuci pedagogoa ekarri zuen 2014ko otsailen hitzaldi bi egitera. Liluratu egin ginen berak proposatutako gauza askorekin. Argi ikusi genuen aukera paregabea dugula eskola txikia izanik GUZTIENTZAKO ESKOLA sortzeko.

Eta horrela hasi ginen hausnartzen, irakurtzen, eskola ezberdinak ikusten... eta gure proiektua diseinatzeko.

Adin aniztasuna aberastasun iturri izanik, adinkako gelak puskatu eta TAILERRAK sortzea erabaki zen.

1. Orain arte 2 urteko gela izan dena, sormenerako tailerra izango da. Bertan, teknika ezberdinak landuko ditugu (marrazketan, buztina, plastilina...) I. Musika adierazpena musikako irakaslearekin landuko da. Lasai egoteko txokoa ere bertan egongo da, eta bat egingo du liburutegiarekin.
2. Esperientazio gunea. Bertan, gune ezberdinak landuko dira (esperientazio gunea, matematika, idazketa-irakurketa, geografia eta botanika printzipioz), eta guztia MODU MANIPULATIBOAN landuko da, ikasketak

esanguratsuak izan daitezten. Hori egoki egiteko, irakasle batek formatua jasotzen du asteburuetan.

Manipulatiboki lan egiteak material zehatza erabiltzea ekartzen du. Montessori materiala izango da. Oinarritzakoa erosiko dugu eta asko eta asko guk sortuko dugu; lehen hezkuntzako irakasleek lagunduko digute horretan.

Arrazoi ezberdinengatik; materialak eta filosofiak AUTONOMIA ETA BEGIRUNEA bultzatzen dutelako, eta hauek izango dira URKIPE ESKOLAKO HELBURU NAGUSIAK.

3. Espazioa JANGELA izango da. Bertan, txikiak mahaia jartzeaz arduratuko dira. Horrekin, AUTONOMIA eta ardura lantzea izango dugu helburu.

Laburbilduz, ildo nagusia Tonucchik aldarrikatzen duena da, hau da, tailerka lan egitea eta herria tailer potentzial bihurtzea. Horretarako, irteerak pentsatuta daude, haur eskolakoekin bateratuz, alkatearen figura indartzea...

Hori aberasteko, material eta espazio txukun eta egokia izango dugu. Espazio fisiko egoki batek pentsamendu ordenatu batera eramaten baitzaitu.

Helburua da gure haurrak herritar sentitzea, IDENTITATEA garatzea, euskaldun sentitzea, herritar kritiko bihurtzea, herrian dauden ondasunak ohartaraziz.

Hurrengo ikasturteko proiektuak GURE HERRIAREkin lotura handia izango du, eta Goierriko beste hiru Eskola Txikiak elkarlanean jardungo dugu.

Ilusioz beteta gaude eta gogotsu ari-tuko gara, hori ziurtatu dezakegu! ■



*Oierrek usain berbera duen bikotea bilatu behar du! Lortuko du*



*Iraitzek musika sortzeko tresna asmatu du! Aupa zu!*



# 2013-2014 ikasturtearen balantzea

**Kaixo!!**

Azken urteetan bezala, ale honetan haurreskolako zenbait pasarte erakutsi nahi dizkizuegu, hurrekin egiten ditugun zenbait ekintza. Urte oso polita pasa dugu, eta pena ematen digun arren, agur esan behar diegu Xanti eta Marari! Ondo ondo eta zoriontsu segi zazue hurrengo urteetan ere! Eta ongi etorria emango diegu Eneko eta Aierti!!

*Txiki txikitatik hasi ginen haurreskolara etortzen...*



*Baina pixkanaka handitzen joan gara, bakar bakarrik ikasi dugu zutitzen!*



*Jolas pila egiten dugu gelan!*



*Eta batzutan trastakeriak ere egiten ditugu...*



*Jolas arraro xamarrek  
ere noizbehinka...*



*Baina hauek ditugu  
gustokoenak!*



*Saltsa ederrak prestatzen  
dizkigute Miren eta Amaiak!*



*Kirola pixkat ere egiten  
dugu batzutan...*



*Eta eguraldiak uzten  
digunean, beste lagun batzu  
bisitatzerara joaten gara,  
eta ogi pixkat ematen diegu!*



*Gu hementxe gelditzen gara jolasean.  
Nahi duzutenean etorri bisitan...  
ateak irikiak dituzue edozer gauzetarako!!!  
Aio!!*



*Betiko legeez, ez ahaztu haurreskolako atearik irikita  
dituzuela edozein informazio eskuratzeko.  
Uztailaren 21a arte hemen egongo gara,  
eta bestela deitu 943164831 telefonora!*



# Gaztelekua

## Ikasturte emankor baten kronika.

Ikasturtea bukatu zaigu eta orain balorazioak egiteko garaia dugu. Gazteria sailetik, aurreten gauza ugari egin ditugu, eta banan-banan kontatzen ez hasteagatik, oraingo ale honetan argazkien bidez kontatzea erabaki dugu.

Astelehenetan, ludotekan haur ugari elkartu da. Ostiraletan, berriz, nerabeen txanda izan da. Guztiek ere hainbat jarduera egiteko aukera izan dute, batzuk beraiek proposatutakoak eta beste batzuk, berriz, Ainarak antolatutakoak.



Azala zaindu eta apaintzeko tailerra



Bazkariak



Epalleak izan gara



Mami txapelketan parte hartu genuen



Pintxo lehiaketa irabazi genuen



Zinera joan ginen





# Ludoteka

**Herriko txikientzat makina bat esperientzia bizitzeko parada.**

Ikasturte honetan, gauza asko ikasi ditugu eta orain datorrena prestatzen ari gara bu-rubelarri. Horretarako, haurren iritzia jaso dugu, baita nerabe eta gurasoen ere. Guztien ekarpenak jaso ditugu, eta momentu honetan, udaletxean, datorren ikasturtean gure zerbitzu eta programek izan behar duten norabidea hausnartzen eta lantzen dihardugu.

Orain, haurrek udalekuak izango dituzte uz-taillean. Nerabeek, berriz, UDA PLANA 2014 izango dute. Abuztuan, guztiok merezitako atse-dena hartuko dugu eta irailean etorriko gara be-rriro ere indarberrituta, lanerako gogoz eta proiektu berrie-kin.

Uda ona igaro dezazuela opa dizuegu! ■



Altzorraren bila



Antzerki tailerra



Bonboi tailerra



Haurren batzordea osatu dugu



Master chef lehiaketa aste santuetan



Separagailu tailerra familia giroan



Gastaren museoa

# Atez ateko hondakinen bilketa: urtebeteko balantzea


Atez ateko bilketa 2013ko martxoaren 22an jarri zen martxan, herritarren parte hartze prozesu zabal baten ondoren.

Lehen urtea bete ondoren, emaitzak aztertu eta ondoriok ateratzeko ordua iritsi da. Baita etorkizunari begira erronka berriak ezartzekoa ere.



### EMAITZAK

2013. urtean gaikako bilketa %88koa izan zen. Datu izugarria, benetan. Martxotik abendura bitartean bildutako 106 tona-tatik 93 tona birziklatzeko bidean jarri dira, eta beste 13, aldiz, zabortegira eraman dira.




Birziklatzera / A reciclaje (kg)	92.973
Zabortegira / A vertedero (kg)	12.980
GUZTIRA / TOTAL	105.953
Birziklatzera / A reciclaje (%)	88%
Zabortegira / A vertedero (%)	12%
GUZTIRA / TOTAL	100%

Eskualdeko beste herriekin konparatuz gero, Itsasondoko gaikako bilketako datua (%88) Sasieta mankomunitatean 2013an lortutako indizearen (%44) bikoitza da.

Gaika bildutako hondakinaren artean, organikoa da aipagarriena: bildutako guztiaren heren bat da, eta errefusa bera baino hiru aldiz gehiago biltzen da. Eta hori, gaitera, herrian zehar banatutako hainbat eta hainbat konpostagailu kontuan hartu gabe. Azpimarratzekoa da baita zein errefusa gutxi botatzen dugun zabortegean (hiler 1.000 bat kilo baino ez).

2013 URTEA: MARTXOA-ABENDUA	GUZTIRA - TOTAL	
HONDAKINAK - RESIDUOS	kg	%
Beira - Vidrio	23.692	22,4%
Papera eta kartoia / Papel y cartón	14.320	13,5%
Ontzi arinak / Envases ligeros	13.440	12,7%
Materia organikoa / Materia orgánica	37.740	35,6%
Errefusa / Resto	12.980	12,3%
Arropa zaharrak / Ropa usada	3.283	3,1%
Pilak / Pilas	68	0,1%
Sukaldeko olioak / Aceite de cocina	440	0,4%
	105.953	100%

2014. urteko lehen bost hilabeteetako emaitzak ere oso antzekoak dira. Urtarritetik maiatz bitartean Gaikako Bilketa %84koa izan da, mankomunitateko altuenetako bat. Ondorengo taulan ikusten den bezala, punta-puntan dago Itsasondo.



### ONDORIOAK

Urtebete igaro ostean, zenbait ondorio atera daitezke:

- Ingurumen ikuspegitik begiratuta, emaitzak oso onak dira, eskualde mailan altuenetakoak.
- Herria garbi eta txukun dago, garai bateko zabor puntuak batik bat.
- Kontenedore eta posteak kenduta espazio gehiago irabazi da.
- Garai bateko edukiontzien usain arazoak desagertu dira.
- Atez ateko zerbitzuari esker, gertutasun maila handia lortu da.
- Ez dago ukatzerik egungo zerbitzua garestiagoa dela, baina esan beharra dago eskualde mailan zabor-tasa txikienetako duela Itsasondoko.





# Salmenta teknikak, erosleari tentazioa sortzeko prest

**Gure etxeetan sortzen dugun hondakin kopurua estuki lotuta dago egunero kontsumitzen dugunarekin. Ingurumen ikuspegitik, erosten ditugun produktuen aukeraketa egokian datza tratamendurako sortuko ditugun hondakinen kopurua. Horregatik, ezinbestekoa da hondakinak sortzen diren abiapuntura jotzea, hau da, erosketa egiteko momentura.**



**B**atzuek uste dute arlo horretan zeregin txikia dagoela, batetik, egungo merkatuak aukera gutxi ematen digulako hondakin gutxiago sortu nahi badugu edota gaiaren irtenbidea administrazio maila ezberdinen eskuetan dagoelako, besteak beste: ontzi ekologikoagoen aldeko araudiak bultzatuz, material arriskutsuak debekatuz... eta ez zaie arrazoirik falta.


Hala ere, eta aipatutako mugak izanda, gutako bakoitzak gai honen inguruan zeregin handia duela konturaraztea nahi dugu, kontsumitzaileak garenez, gure esku baitago merkatuan eragitea eta eskura ditugun neurri guztiak abian ipintzea, kontsumo arduratsuagoaren ildo jarraitzeko. Adibide erraz honekin ulertuko duzue: denda batean paper birziklatuan orri paketea eskatzerakoan gerta daiteke

ez izatea eta beste batera joko dugu; denda berera astean zehar 30 pertsonak jotzen badute paper birziklatuan orriak eskatuz, azkenean dendariak, ez bakarrik produktu berri hori, paper birziklatuan dagoen aukera anitza saltzea erabakiko du.

Egia da baita ere, saltzaileen helburua dela erosleak ahalik eta gehien erostea, eta horretarako, bere eskura dauden salmenta teknika ugariak erabiliko ditu. Salmenta teknika horiek merchandising bezala ezagutzen dira.



Maiatzaren 27an egindako kontsumo tailerra.





Baina, zeintzuk dira salmenta teknika horiek, ezagutzen al dituzu?

## 1. Orgak eskuragarri nonahi (aparkalekuan, pasiloetan, sarreraren...) eta eskuko saskiak non?




Orga handia oso eskuragarri egoten da, normalean aparkalekuko pasiloetan topatzen ditugu, supermerkatuko sarreran. Eskuko saskiak, aldiz, supermerkatu barruan egoten dira, kutxen inguruan. Kopuruz urriagoak dira, eta erosotasunagatik, jendeak orgak hartzen ditu.

Neurologoek diotenez, gure buruak lanak amaitutzat ematen ditu orga edo saskia beteta ikusten duenean. Eskuko saskia betetzea erraza da, ez dira produktu asko erosi behar; beraz, saskia hartuta berehala emango genuke erosketa bukatutzat. Orga hartuta, ostera, beti dago bete beharreko hutsuneren bat; gure buruak ez du lana amaitutzat jotzen eta produktu gehiago erostera bultzatzen gaitu.

## 2. Kanpoko erreferentziarik ez!

Erosleak kanpoko ikuspegia galdu egiten du, leku itxian sartzen delako, hau da, erosketa leku artifizialean egiten da tokiko zein denborako erreferentziak ezabatuz, argiztapen artifiziala, ordu-laririk eza... Horren ondorio zuzena erosketak egiteko lasaia egotea da; gauza gehiago ikusteko aukera izango da, eta errazago eroriko gara "tentaldian".

## 3. Premiazko produktuak, non daude?



Premiazko produktuak supermerkatuan zehar kokatzen dira, oso sakabanatuta. Horrela, azalera osoa zeharkatu arazten da, eta gainerako produktuak ere erosten dira. Supermerkatuko ka-

leen antolakuntza ere ez da nolana hiko, ezer da da kasualitatea. Kaleek MIMI egitura jarraitzen dute, M= magnetikoa= beharrezkoa esanahi du, eta I= inputsiboa= aukerazkoa.

Eroslea lasai dagoenean, kale batetik bestera pasatzen da, hau da, beharrezkoak dituen produktuetatik, aukerazko edo kapritxoetara. Zenbat eta gehiago ikusi, gehiago erosteko aukera dago; beraz, kontuz zuen pasiloetako paseoetan!

## 4. Apal berean, hilabete batetik bestera salgai dauden produktuak aldatu egin dira.

Zenbatetan gertatu zaigu ohiko supermerkatu joan eta produktu guztiak lekuz aldatuta egotea? Erosleak maiz erosten dituen produktuak non dauden badaki, eta askotan, gehiago begiratu gabe, haien bila doa zuzenean. Saltzaileari hori ez zaio batere komeni, erosleak berak buruan dakarrena baino ez baitu erosten. Hori horrela, saltzaileek tarteka produktuak lekuz aldatzen dituzte, guk supermerkatu osoa zeharkatu behar izateko, nahi dugun produktu hori aurkitu eta eta agian "tentaldiko" beste zerbaite ere erosteko.

## 5. Kutxen inguruan kontuz... beti zain egotea tokatzen zaigu!



Ordaintzerakoan, ilarak sortzen dira eta zain gauden bitartean "kapritxoak" betetako apalak ditugu: txokolateak, gozokiak, txikleak... Leku hauek saltzaileentzat oso

estimatuak izaten dira, bulkadaz erosten diren produktuentzat paregabekoak direlako. Horregatik, bereziki ordaintzen dute bertan beraien produktuak kokatzegatik.

## 6. Supermerkatura autoz... erraz aparkatzeko lekua dago!

Oso ohiko bihurtu da etxerako erosketa handia gutxienez astean edota hamabostean behin egitea, eta egiten dugunean autoz joatea. Supermerkatuetan aparkatzeko arazorik ez da egoten, doako aparkalekuak izan ohi dituzte, ahalik eta jende ugariaren erakartzeko. Aipagarria da baita ere, supermerkatu hauek erosotasun handia dutela, eskailera mekanikoak, igogailuak, pasilo zabalak... jendea bertara gustura joan eta ahalik eta denbora gehien bertan pasatzeko.

## 7. Apal hutsik ez!



Erosleak oparotasuna maite du, nahiz eta krisi momentu latz hauetan oparotasuna urri izan. Erosketak egitea ekintza gustagarria izatea bilatzen du erosleak, eta horretarako, supermerkatuetan apal-betetzaille figura sortu da. Bere ardura apaletan sortzen doazen hutsuneak betetzea da, ugaritasunak, baikortasuna dakar eta baikortasunak gehiago kontsumitzea.

## 8. Tenperatura atsegina... erosketa handiagoa!

Erosketa gustura egin ahal izateko, supermerkatuek tenperatura girotua izaten dute edozein urtarotan. Neguan epel izaten da bertan, eta udaran, berriz, fresko. Saltzailearen helburua eroslea bertan gustura egotea da, eta bere esku dagoen guztia egingo du hori lortzeko.

*Merchandising* teknikak zabalak eta ugariak dira. Saltzaileak ahal duen guztia egingo du ahalik eta gehien saltzeko; eroslearen baitan dago behar duena bakarrik erostea; horrela, kontsumo jasangarriagoa egingo du, eta sortuko dituen hondakinak ere gutxitu egingo dira.

Ikasturte osoan zehar, Eskolako Agenda 21 proiektuan, Itsasondoko Herri Eskolako ikasleak hondakinak gaia lantzen aritu dira, eta maiatzaren 20an, kontsumo jasangarria tailerra izan zuten bertan. Halaber, maiatzaren 27an, herritar ororentzat beste kontsumo tailer bat egin zen udaletxeko Kulturunean.

Kontsumo jasangarria denon zeregina delako... saia gaitzen! ■



Nicolas eta Mari Tere

## Nicolas Iturrioz, txistulari eta organujolea (80 urte)

### Itsasondoko musikarien ondarea

**Juan Mari ta Milixio zien gure aurrekok!  
Ze bizimoduk bizitako gizonak zien  
haik! Zer zien haik, artixtak! Liburu bat  
eskribitzekok! Bizi zien arten ez  
giñuzten iñok eskertu!**



### Pena hoixe da ba! Juten die ta akabo... pertsonakiñ batea gauza asko juten die!

Milixio... Musiko bezela ona! Tartamudoa zan baiño kantatzen zonen etzon tartamudeatzen! Beasaingo parrokitio entierrota ta kantatzea eamaten zuen Milixio, solistea zan. Ze boza, ze burue ta ze musika zon! Partiturea bialtzen zien beak prepa-tzeko... esate zon, biden zijola Itsasondotik Beasaiñea prepa-tzen jun, entieron solista kantau, kobrau estipulatzen zuena ta etxea.

### Ta horrek berezkoa zon doai hoi? Nun ikasi zon harek?

Araman izan behar zon apaiz bat garai hartan musikoa zana, Don Franzisko esaten zien; guk hemen izan genuna, Don Jazinto Tolosa apaize zan, musika ikeagarri gustatzen zitzaiona ta musika zekiña ta guk harekiñ ikasi genun; giro hortan tokau giñen gaztek, batzuk seittu genun ta beste batzuk utzi in zuen, baiño nahi zonak ikasi bazeuken, musika ematen zon. Ni gero eskola Lasaiea jun nintzen Beasaiñea ta han apaiz bat bazan, Don Calletano, musikoa zana parrokiñ, ta harrena jute giñen asten bi o hiru eunetan musikea ta organoa jotzen ikastea.

### Zu zenbat urtekiñ hasiziñen ikasketa hoikiñ? Nola za- letu ziñen organoa jotzea?

Gu esan dizuten bezela Don Jazinto zanakiñ hasi giñen mutil koxkor giñela musika ematen. Bere ilusioa zan txistulari banda bat jartzea Itsasondon ta lortu zon. Jun giñen Beasaiñea ikas-tea Aranburu Txanbona... hau da, hemen daukezu, mil nove-cientos cuareinta nueve, inaugurazio eunen atatakoa (argazki bat ateratzen du mahai gainera, 1949. urtean ateratako txuri-beltzeko argazki bat). Parrokon omenajea o zan Leorretako pla-zan. Hemen ni, hau Inaxio Beko fabrikakoa, oaiñ Venezuelan hil dana, hau Joxe Mari Martitzenekoa, Talu esate giñuna, ta hau Joxe Potxolo esateiuna

### Gogoa euki ta eiñ!

Bai. Hoik prepau giñen! Zapateriko Teodoro zan bestea ta utzi in zon harrek. Gerogoko etorri zan Joxe Antonio Ezeiza, hoi gure atzetio, ta txistuere ikasi zon ta jo zon gukiñ, bandan jo-tzen zon. Gero telebistan lanen ta... ezin zon allau.

### Ordun zuek hasi ziñeten musika gertuatzen apaiz honen bueltan, gero hortik organon bueltan ta gero txistulari taldea sortu zenuen...Ta geroztik, 1949. urtetik gaur arte!

Gaur arte! Goizeko sei terdietan jotzen genun diana. Ta negun baita eskuk izoztuta jotzen aittu! Urten zortzi aldiz o jotzen genun: festak, eguarrak, urte berrik, pazkoa eunek ta akonte-zimentun baten bat bazan... Gobernadorea re etorri zan, ta baita obixpoa re, harri re jo giñun.

Guaiñ suertez txistue zabaldua dau, herri askotan jotzen da, ondo jotzen da. Baiño garai hartan oso jende gutxi zien. Idiazabaldik etortzen zien len Urkia festata jotzea. Gero geok hasi giñen Ikazteita, Olaberria,... inguruko herrita. Zelebreke-rik! Puf!

### Zenbat istori ta kontu horren bueltan ezta?

Bai... Batzutan tokatzen zitzaient Beasaingo bandan, Urrestilla, Nuarbea,... behin Beasaingo txistulari bat ata zan bandatik ta gu han ikasita genden da, hala otsein zien aber jo nainun txis-tue bandan ta nik baietz. Zazpi urte eon nintzen Beasaingo bandan. Hemen jai jakiñetan jotzen genun ta han urte guztiñ. Jaiero atsaldetan plazan. Aurrena guk hiru pieza jotze giñuzten suelton dantza ittekok ta gero bandak jotzen zittun beste hiru, alternatuz.



## Zuek festa asko jarritakok zeate inguru hotan!

Beasaingo bandakiñ Olaberria urten bi aldiz juten giñen, San Juanetan ta geo San Juan txikitan. Arriaranea,... inguruta. Hala, Beasaingo bandan neon esan dizuten bezela ta Matxinbentan festak San Sebastianetan. Xaxiurra, Azpeitiko txistularie etortzen zan banda baño bat gaixotu ta Beasaingo aiuntamientoa otsein zuen txistulari bat eskau zuen. Nei deittu ziten notariok, jungo al zea Lakuntza hiru euneako? Hiru eun han? Bueno... jungo gea! Hala aiau gea bizikletan, nik enekiñ hango berri baño... Goizen dianea jo deu sei terditan ta haik hautza urte askotan junek zien sobrare ta ni aurreneko urtea hautza juten nintzela ta... jo genunen diana ta esan zuen... bueno guaiñ bukau da ta oaiñ meza nausi arte alkate soiñue joz aiuntamentukiñ... Mekasuen sos! Bodegata hok ohittuta zeuden ta Azpeitiko honek harrapatzeo Jesusena!... ta esan zion alkatek, utzi-utzi lasai zuk, gazte honek joko do... Ta hala ni bakarrik tanborrero-kina ta bestea ohia!

Beasaingo bandakin nintzelare urtero Olaberria jute giñen bi aldiz, San Juanetan ta gero San Juan txiki o esteie. Baita Arriaranea ta... Hamaika pasatakok gea! Ni Azkarrenen nebillen ordun... Bartzelona ibiltzen giñen kamionakin ta Lazkuko oaintxe hil da, Juan Hiru Txikikoa, laun haundie nun... Kamionen txistue ibiltze nun beti ta Bartzelonan udala zan, Oñatikok zien nausik, ta han geatu giñen eun batzuk kargaik etzeolako ta esan ziñ txistue ekarri zak! Hala, itxi deu taberna hoi, txistue jotzen hasi gea, Tarrasan zeon meiku bat Donostikoa hango neska batekiñ ezkontuta, etorri da ta mekaue... gauen erdie pasa genun txistue jo ta dantzan.

## Juntauko zan ba jendea zuek aitztea?

Bai, euskaldunek, han zeren euskaldunek... Bai! Pasaitteu! Bestaldekok e izan die baño eun polittek e bai izan die!

Behiñ organokiñ gertau zitaitzen zelebrekie Itsasondan. Jai zan eta urtebetzen bat o bazan da, hamarretan izaten zan meza nausie. Bartzelonan neon lanbat gauen kamioikiñ. Gau guztiñ etorri ta allau nintzen meza nausiako. Don Martin Sagastume apaiz zeon ta esan ziñ ze in da,... bi eun lo inbe... Hala hasi gea, jo deu Kilie, Glorie, Incersesti de onda, sermoia allau gea. Sermoia hasi

zon ta nik organon kontra geau nintzen da bertan hartze det lo! Esnaunintzen ta eliza hutsik! Hitsik elizea! Don Martin Sagastume bakarrik han altaren. Hala esan ziten, ondo in dezu, logurek zenden da... Hau dek lotsea esaten nun! Hau dek lotsea! esaten nun.

Lengok hala ibiltze zien! Guaingok ez dakit ze ingo duen... (Mari Terek).

Guaiñ kanbiau in da, kanbiau in da. Oneakore izan leike baño... badau diferentzie!

## Asko kanbiau da bai! Zuek herriko festak esateako nola akordatzaittuzuen ta gaur eungok...

Gu Urkiko festatan, karo, ordun etzeon radioik, ez genduken ezerre ta soinu jotzen zuenak e... dantza itteko gogoa eukiatik soiñuik ez gendun. Gu neska koxkor ta gehixeo, ta Santikutzetan Izalgo txistulariok etortze zien, Nazario ta... Vitoriano, bueno famosok zien, haik etortze zien. Gu igual Urkiañore ez giñen jungo baño baginiñ nola Urkitik bazkalduta etortzen zien eta gu Larrai alde jute giñen ta han jo itten ziu piezan bat o beste ta han dantza itte genun! (Mari Tere).

## San Juango ermita jute ziñeten bate jotzea?

Bai. Elizizunek itte zien da armonioa dau han ta kantatzea juten giñen. Bodak eta re izate zien bai ta jai batzutan e bai. Aste Santun hemen itten genunen funtzioa hautza jute giñen. San Juango festatan e jute giñen jotzea. San Juanetan. Goizen meza ta hue bukatukon Nievesek, Joxe Mari alkate eon zanan gurasok, harek jartzen zon gero hamai-ketakoa, harrek ibiltze zon elizako martxea. Gero txistu jo ta dantza iñ doze-nardi bat pieza jota. Hoi galdu in da, galdu inda...

Lorak e eamate giñuzten bedeinkatzea, baita arto landarak e. San Juanetan garaie ta bai, artoa, beste landaran batzuk e eamango zuten... (Mari Tere).

## Lizarra ta ez? Gure etxen lizarra jartze zan atarin San Juanetan.

Bai, aten! ordun hoi re jarri itte zan, guaiñ ez da itten. Aten bi eskiñatan jartze zuen lizarra. (Mari Tere)

## Ta gurutzek e bai karreatako ataritan ezta?

Bai, baita soron e! Soron jartze zuen. Erraman txustarrakin indakok izate zien.

## Ta erramu bedeinkatuere surta botatze omen zan amonak kontatu izan dit tximista eta zienen...

Tximista haste zonen... gu ordun beran bizitze giñen, hau len ganbarea zan... Esangoziun, junai ganbara ta ekarri zan erramue ta... hura surta botatze zan. Hoik lengo gauzak izaten zien... Nei amonak esate zizkiten gauzak... kantakin da eoten naiz pentsatzen... "Uxo zuria aidean, ederrago da..." Eta pentsatze det... kanta honek zenbat urte oteittu! Guri amonak kantatze ziun ta esate ziun beai bere amonak kantatze ziola.

## Jakingo zenue kanta hoi osoik kantatzen?

Hoi, kanta hoi? Bai... Uxo zuria...

*"Uxo zuria errazu,  
nora joaten zera zu,  
Euskal Herriko mendi guztiak,  
elurrez beteak dituzu,  
gaur gauerako zure ostatura,  
gure etxean daukazu."*

Horrek, eukikottu, igual dauzke 400 urte. Ez da gehiegi kantatzen! Guri amonak kantatze ziun ta hari bere amonak kantatze zion. Hauskalo noizkoa dan! Baiño oso aspaldikoa! (Mari Tere).

Itsasondo herri txiki bat izateko musika maillan ikeragarri altu eon gea, guaiñ kontuatze naiz ni. Gu allau gea herriok... segunda pontifical de merosi, meza kantatzea, lau bozeta herriok, organokiñ ta txistukiñ! Horregatik herrin esanahizut zer zeon. Dana ai da... Eliza maillan galdu in da ikeragarri, hoi garbi dau! Guaiñ ikustea, eliza jute zea ta... 12 laun, 14 laun...

## Baño hoi bezela danen...

Bai. Len festa gutxi izate zien ta utzi, etziguen uzten leku askota juten ta ezin giñen gaiñea jun e iñ, ordun etzeon ko-txeik! Bizikletan jun behar ziñen, ordun bizikletan juten zan asko. Atauna ta bizikletan ibiltze giñen. Ta karo, ordun estimau itte ziñuzten ingurutako festak ta ordun jun itten zan jendea! Guaiñ eunero festa zeon! Ordun aldameneko festak ta izate zien, bueno! Ta utzire itten zizuven pixkat gehio juten da ordun jendea gehio jun itten zan... Guaiñ urrutigota juten da jendea ta... distantzik ez dau guaiñ. Len ingurugon sosegatzen zan jendea eta gazte jendea ta asko zan ordun, pentsa zazu ze familik zien! 4 ta 5 ta 6 ta 8 senidetakok! (Mari Tere)

**Gauza batzuk oneako kanbiau die, ez deu esan behar dana txarra dala, baiño beste batzuk... asko, gehiau galdu in deu, pentsatzen det nik.**

Egie da zuei garai oso gorra tokau zitzaizkizuela... gerra tarteko ta haren erentzie, gosea, mixerie,... gauza gorrak!

**Bai!!!! Goango berriketak! Zapatak perruta!**

Guaiñ... gauza polittek gehio apreziare bai!

Guk genukenen zerbait disfrutatze genun askoz gehiau. Guaiñ ikusteittut neska gaztek eta lurren exeita ta hola igual eonen... ordun tentegoa zan orduko gaztea! (Mari Tere)

Hasiera esan deun bezela musikako guri Don Jazinto Tolosa apaizek eman ziun. Gazte hil zan, 37 urtekiñ hil zan. Ikearrie zan musikako. Geo atzetio Don Manuel Etxeberria, musika, solfeoa ta emate ziun. Hure diferente zan, Urkiñ eoten zan, Zaldibikoa. Hure zan superdotau. Hure zan! Organoa jotze zon! Pentsa zazu, azkeneko urtetan Beasaingo parrokiñ organista eon zan. Urkin bizitze zan ta guri eskola etortze zitzaian solfeoa ematea, oaiñ gaztetxea daneko hortan, hor zien len eskola. Ume pilla ordun, aparte, goien mutillek ta beran neskak.

**Erderaz izango zan ordun? Partiturak latiñez?**

Bai, erderaz izaten zan. Partiturak euskeraz bai... baiño latiñez asko. Ez genekiun ze esate genun baiño... ze disparate esate giñuzten guk!

Ordun ez giñun antzik ematen baiño guaiñ pentsatzen jartze naiz... erderak bado tankera latiñena, guaiñ latiñezko hitzei emateiet antza baiño... ze ikusie

bado. Baño ordun erdera ez genekiñ ta latiñez gutxigo. Ba... baño defenditze giñen... (Mari Tere).

Gero, guk herrikok bukau genunen organo pixkat zeatzen da Tolosan zan organista on bat, hemen Euskal Herrin zan onena, Mokoroa, famosoa. Hure organista Espaiñiko buru zan... ta hautza juten zan jendea. Baiño klaro, diru bat, hillen hoinbestekoa pau beharra zeon da gure etxetan etzeon diruik. Ordun etzan guaiñ bezela. Nahiz ta zuk abildadea ta ikasteko gogoia euki ta balio, gurasok etzeukien moduk.

**Makiña bat geauko zien gogokiñ!**

Ta balio zuenak e bai batzuk! Ordun dirue zeukenak itten zon karrera, oiña zan mundue ordun. Gero ondorengo urtetan izan da modue beheragoko jendek ikasketak itteko. Baño gure garaien, balio zeikezun, ta gustau zeikezun baiño ezintzun.

**Garai hartan trikitilarik ta bazien herriñ?**

Ez, txistularik bakarrik... trikitilarik etzan. Iuiako Joxek akordeoia jotze zon, mahien gañen jarri ta benga! Jeixten hasten bazan, utzire ez omen zien itten jeixten... Joxe benga! Gero hemen In-txaurrono re bazan, soinu txikie jotzen zon... bueno, jo o... hotsa ata behintzat. Baiño ordun etzan, soiñujoleik.

**Herri bakoitzen organo jotzaille on bat behintzet bai!**

Ordun bai! Lau bost hasi giñen juten Tolosa ta utzi iñ behar izan gendun. Batzuk seittu zuen, al zuenak... baiño amak esan ziñ, etzeok pa juteik! Ez gaittuk allatzen!

**Pena izango zenuen ba e?**

Bai! Orduako itsututa hango organokiñ baiño.. Armonio bat ona geneuken da eliza juten nintzen jotzea.

**Hautza jute ziñen ensaiatzea ordun? Ordu batzuk sartutakoa izango zea? Bai... puff!!**

**Garai bateko organo berdiñe al dau Itsasondoko elizan?**

Ez, guaiñ ona daukeu. Guaindala urte terdi bi urte eosi genun. Besteare han dau, armonioa, koru azpin! Bi dare: armonioa eta geo elektroniko txiki bat ekarri genun ta guaiñ ona daukeu. Armonioa, Juan Marik eta jotzen zuen hua! Zenbat urte ote dauzke! Badie 60 urte pasak darmaizkiu, ta haik aitonak ezautu giñuzten ia... Auspua zeuken ondautu. Urretxua ta junda ibili giñe batzuk da, bada han auspok eta arreglatzen ziena ta honek zulaute zeuken ta haizek alde itte zion. Geo erabaki zan beste bat ekartzea ta Panplona jun giñen Joxe Antonio ta ni,... ikusi giñuzten moderno hoik, ta oso onak ziela ta hoitako bat eosi gendun.

**Ta zure atzetik Nikolas, herriñ erreleboik ba al deu?**

Bai, bai,... Joxe Antonio Ezeiza. Horrek elizakoa, ez dakit beharreinekkoa izango dan elizan guaingo martxan,... baiño seitzeko mun harrek. Txistuna, zeago biltzaite, Joxe Mari Mendizabal saiatzea baiño... nahikoa lan euko do... Guaiñ ikearri kanbiatu da. Gaztetatik norbait ata behar da segidea emateko. Askotan jun naiz udaletxea esatea, eskaitte zue diputazioa txistu batzuk. Emateizuela txistu batzuk, ekarritze zue ikastola ta umei eakutsi. Joxe Mari San Juangok alkate eon zanen esan ziñ... Esan ze behar dan, zeoze kontsegittuko deuta ta konsegittu in zon. Eman giñuzten eskola nahi zonak jo.

Txistun banda osok jo ezkeo oso politte da, primero, segundo, silbetea ta atabala. Politte da, guaiñ konpletoa organoa da. Organista on bati aitzeta da! Guaiñ toki batzutan dare! Donostiko Buen Pastorrekoea da! Hango apaizek esan ziun... etorri ba atsalden hiruetan ta jo lasai. Bost teklado dauzke. Arreglatzea ez dakit zenbat milloikosta dan! Hure da...! Orkesta batek jotzen dona jo daikezu harekiñ. Instrumentu konpletoa hoi da! Pasatzen dana... hoi ondo jotzeko puff! Ikutezu zenbat urte dien aittu beharren da... Geo musika leittu beazu! Emateizue partiturea ta... puff! Puff!

Halaxe izan zan gure hasierae! Guaiñ...urtek jun die! 65 urte ia txistue ta organoa jotzen ai geala. 80 in dittut aurten. ■





## Joxe Otegi, atabalaria (79 urte)

### Itsasondoko musikarien ondarea

**Garai hartan bizikletan jute giñen, ordun ala ibiltze zan jendea. Ta geo Olaberrin e bai, Beasaingon partez, bat soldadu zeola ta hola...**

**Nikolasek eakutsi ziten argazki zar bat... Legorretako plazan Itsasondoko txistularin bandan inagurazio eunekoa... Han zendeten...**

Bai,... Nikolas, Inazio, Venezuelan hil zana, ruso esten ziena, bestea Joxe Mari, talu, Rosarion anai. Eta...

**Bestea zu, zeorri gaxte-gaxte... Zenbat urtekiñ hasi ziñen?**

Bai, hamabin bat eo urte euko nittun.

**Nola hasi ziñen musika mundua gertuatzan?**

Apaize konjuntorea Don Jazinto Tolosa amezketarra ta harek... Korun e kantatzen genun, korua gora illotzen giñen, oso gazteik hasi giñen kantatzen ta solfeoare eakutsi itte ziun. Gero txistularik jarri behar zuela ta hola hasi giñen. Beasaíñea jute giñen eunero ikastea Txamu zarrana.

**Zenbat hasi ziñeten hasiera hartan?**

Ba,... aber... Nikolas, Inazio, Joxe Mari talu, bestea zapateiko Teodoro zana eta... bestea ni. Baiño Teodoro zanak bi pieza ikasi zittun, fandangoa ta ariñ-ariñe... fandangoa guaindik gogon dauket "sol si sol si do do si mi re la la do do si..." baiño bi pieza ikasi zittun ta esan zon, ba hortik etzeok negoziok! eta utzi in zon. Ta Joxe Mari e jotzen zon silbotea harek baiño utzi in zon. Alkate soiñue ta jotze zittun, San Inazio martxea ta hoik e bai baiño sueltokoa etzon jotzen. Urkiñ atentzioa eman die, alkatea ordun Markos zana izango zan ordun da... Hark esan zion, ze hik ez al dek jo behar ala Joxe? Ta harek gaizki hartu. Ta gero beste bat, Sundaikoa, Joxe Ramon o ez dakit zeizen zeuken, harek e esan... hoi dek estakea Martizio! Ta huare gaizki hartu. Martizio aitte zon Joxe Mari ta... behintzet gero utzi in zon hareke. Baiño debutau gendunen da ibili zan. Leorretan akordatzen naiz apaizen baten despedidea zan, San Jose eune da han debutau gendun, prozesion da han ibili giñen, da bazkarie Intxaustiñen, han goien. Bertako launek e baginutzten, Legorretakok da Gaxtexi zien, lau anai zien, bat ez da denbora asko hil zala 86 urtekiñ o, beste bat Ordizin bizi da ta beste bi hil zien... haik zien..., bat behintzet oso xelebrea!... Angulak izate ziela bai aittu guk baiño ikusibe arten. Bazkaltzeko atea zittuen angula hoik platera da Gaxtexi zan horrek, guaiñ txixara hok jan behar al dizkiau! Talu horrek hartu zon platerea ta lehiotik bera bota zon. Leorretan beti pasatzen naizenen beti akordatze naiz leiho harekiñ! E!!!! Etzitzek bota, etzitzek bota! Gaxtexi zan horrek harena ta berea, bi razio jan zittun!

**Debutau esate zunen ze esan nahi zu horrekiñ?**

Aurreneko plazai.



## Aurrenekoa Legorretan in zenuen da ondorengok?

Gehienak herrin. Urkiñ e jotze genun urtero Santa Kruzetan, da Nikolas gero Beasaiñekin hasi zan. Ta Inaxio zanak, afizio ikeragarrie zon musikako ta Ordizin aurrena bandan da geo beste grupo bat e bazan, ez dakit ze esate zien e... Klarinete jo zon aurrena, gero sasofoiare bai,... Gero 26 urtekiñ izan zon neskan batekin disguston bat ta jesuitata jun zan Azpeitiko Loiola ta handiore moton solfeoa meioratzea Gurrutxaga zanana Ordizia etorri itten zan. Ta eskutako soiñuere jotzen ikasi zon ta dultzineire bai, bere aitte zanak e jotze zon ta gure aitte zanak e bai, dultzine, eta organoare bai. Gero jun zan Venezuela misiolari bezela ta han e organoa jotze omentzon. Urtebete ez da hil zala 79 urtekiñ. Musikako afizio ikearrie zon bai harek! Neire komeni zitzaittela kontzertotako gehio ikastea ta Gurrutxagana jute nintzen Ordizia nire. Bandako direktorea hure zan.

Itsasondotik kanpoa aitze giñen... Izalen festak, San Lorenzotan izaten die festak, abuztun 10n. Garai hartan bizikletan jute giñen, ordun ala ibiltze zan jendea. Ta geo Olaberrin e bai, Beasaingon partez, bat soldadu zeola ta hola... Beasañen e jo gendun, Txanbo zanan omenajen,... Asko giñen ordun! Geo kontzerttoa zineko hartan eta direktorea Paskual zan, hil zan huere. Gero Santa Luziñ e jotze genun zeatik hemen zan apaize, azpeitiarra, Don Simon, hautza jun zan hemendik da haren bidez han e jotze gendun. Gero, Lazkaun e noizik eta behiñ jo gendun heatakok kanpon zielako o soldadu zeudelako o... apaizen despedidatan e bai, baten Araman izan giñen, besten Zaldiriñ,...

**Zuek piezak jo ta jendeak dantza iñ!**  
Bai, ordun bai. Guaiñ ez do jendeak dantzik itten...

**Itsasondo herri txiki bat izateko musikari batzuk izan die...**

Bai gero Joxe Mari Mendizabalekin kua-drilla batek ikasi zon. Behiñ Amabirgiña eunen goizeresie jotzen 16 laun kontau nittun nik ta, en kanbio, repetizioko eunen 9 giñen. Baiño uzten jun die... Pentsa Joxe Marik ze sakrifizio in zon hoinbesteie eakusten! Ta trikitixekiñ e



beste hainbeste pasa zan. Trikitixare bastantek ikasi zuen baiño guaiñ ez dakit iñok jotze don.

**Atzekok ez deu ez jakiñ segidea ematen ez... Zuen aurretikok berriz zein zittuzuen?**

Milixio ta Juan Mari Elizegi, organistea, jaiero jotzen zon organoa ordun ta Milixio berriz zan sakristaue baiño kantatzen e solistea ta izateko abildadea zeuken. Zartuta hil zan, Ixabelen da aitte. Gaiñea zan herriko aguazille ta enterradoreare bai.

**Nahiko artixtea izan behar zon gizon harek ala?**

Bai, bai!... Soldaduskan e usteet jefen batek kantari jarri ai itte zola... historie bazan hor! Ta gero... etxeik etxe, ze lan izate zon harek aiuntamientotik... karteroa ez behintzat, kartero Luixito zanan da aitte ta zien kartero ordun... enaiz akordatzen seguro, baiño aguazille zan behintzet.

**Kontuk atutzen hasita danea zenbat urte in dittuzu zuk txistu ta atabala joz?**

Hoi apuntauta dauket etxen baiño guaiñ enaiz akordatzen. Baiño...nik txistue... txistue utzi zien nei eta ikasten hasire bai baiño geo eskau ziñ Jexux Letek ta... Don Jazinto zana heakiñ zeon apopillo ta eman in nion... Geo beak etzon asko enpleako baiño...

**Ordun txistue utzi ta atabalakiñ seittu zenun?**

Bai. Txistuik nik enun kanpon bate jo, ikasi, ikasten hasi besteik ez. Denborik etziñ eman bestetako...

**Seittu zuenak zeñ izan zeate?**

Ba... gaztek hasi zientetatik, bat Nikolasen semea dau, Jexus Mari, bestea Joxe Mari Mendizabal da honen alabak e jo izandu zon, ta Xabik e bai, Joxe Martiñen semek e... Juntatze dienen... Gero Enarak e bai, harek e jo izandudo baiño... Ikasi iñ zuen bastantek baiño... ■

# Jubilatu elkarteko txangoak

## La Rhun eta Ataun helmuga

### Bizi nahi elkartetik txangoa Ataunera

Beste behin ere, Bizi Nahi Jubilatu Elkartetik txangoa prestatu genuen apirilaren 29an, Ataungo San Martin elizako ondare historikoa eta arkitektonikoa ezagutzera. 10:00etan Itsasondoko plazatik irten eta Ataun San Martingo plazara iristean, Atsedentoki elkarteko kideek egin ziguten ongietorria. San Gregorio aldera erreka ondoan dagoen bidean paseotxo bat eman ostean, hamaiketakoa egin genuen Atsedentoki elkartean. Ondoren, eliza eta bertako organo barrokoa (1761ean eraikia) bisitatu genituen, eta 14:00etan Bitor jatetxera gerturatu ginen bazkaltzera. Bazkari ederra egin eta giro paregabea egon ginen, mahai inguruan eta tertulian.



### La Rhun-era txangoa Bizi Nahi-tik

Oraingoan, Ataungo Atsedentoki jubilatu elkartearekin batera antolatu dugu txangoa, eta Iparraldeko La Rhune-era irten gara. 08:30ean Itsasondoko plazan elkartu eta zuzenean La Rhun mendira igotzeko trenea hartu genuen. Gora igo ginenean, nahi zuenak paisaia gozatzeko eta nahi zuenak kafea hartuz pasa genuen goiza. Handik Zugarramurdira jaitsi eta Gra-xiana jatetxean bazkaldu ostean, Hondarribian igaro genuen arratsaldea.

## Jubilatu elkarteko oharrak

### Aholkularitza juridikoa dohainik

Itsasondoko Bizi Nahi elkarteko bazkide baldin bazara, kezka bat argitu beharra badaukazu eta horretarako abokatuarekin kontsultatu nahi baduzu, inongo zailtzarik gabe, zerbitzu hau dohainik daukazu, zure esku.

Zerbitzu hau erabili nahi duenak, Bizi Nahi elkartearengana jo behar du eta honek Donostiako abokatuarekin hitzordua bideratuko dio.

### Podologo zerbitzua

Itsasondoko Bizi Nahi elkarteko bazkide izanda, Ordiziako podologo zerbitzua izango duzu zure eskura. 943 88 92 88 telefonora deitu eta txanda eskatu. ■



# Izeba proiektua

**Tutoretzapean dauden adingabeen osabalizetak izateko eta haien bizi kalitatea hobetzen laguntzeko prest dauden pertsona- edo familia-sarea da Izeba Proiektua.**

**E**rreferentzia- eta laguntza-familia horien eginkizuna hau da: ikasketak direla eta, adibidez, gurasoengandik urruti bizi den iloba batengandik hurbil bizi den osaba/izeba batenaren antzekoa. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuak eta Bake-tik Fundazioak elkarrekin izenpetutako hitzarmenak abiarazten eta garatzen du ekimen hau. Itsasondoko herritar guztiek parte hartu dezaketenez proiektu honetan, zuen interesekoa delakoan, proiektuaren ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu.

Zertan gauzatzen da? Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuaren zuzeneko laguntzarekin, borondatezko hainbat familiaren sareko laguntza eskuratzen saiatzen da, babesik gabe dauden neska-mutiko horien harerako osaba-izeba edo laguntza-familia izan daitezen. Hartara, bizi den harrera-lekuaz gain, erreferentziatzeko familia bat ere izango du gazte bakoitzak haren inguruan. Erakunde publikoen eta harrera-lekuen garapen ahaleginaren osagarri dira, beraz, harerako osaba-izeben familiak.

Izeba/osabaren eginkizuna: laguntza-familia horien eginkizuna hau da: zenbait laguntza eta presentzia mota, maiztasun

jakin batekin (astean behingo topaketak, telefono-deiak, ingurunearekin jarduteko zenbait laguntza eta bitartekaritza bide...). Gaur egun, bi aukera daude babesik gabeko adingabeei familia-laguntza emateko: adopzioa eta harrera. Izeba Proiektuarekin, beste aukera bat eskaintzen da: laguntza-familiak edo harerako osaba-izebak.

## Zuzeneko helburuak:

- Bizimodu hobea izaten laguntzea adingabe tutelatuei, afektibitatezko familia-erreferentziak sortuz eta, horien bitartez, harreman sozial berriak eskainiz adin txikiko hauen ingurunean bertan.
- Gaiaz arduratzen diren erakundeekin elkarlanean jarduteko familia sare bat osatzea, erakunde baten tutoretzapean dauden adingabeen kasuetan harrera eta gizareratzeak dakartzan zailtasunei eta arazoei erantzun etiko eta ego-kia ematearren.

## Helburu osagarriak eta orokorrak:

- Elkartasun eta konpromiso kontzientzia sortzea gizartearen arazo konplexu horrekiko, eta komunikabideak arduraz eta zorroztasunez jardutera bultzatzea.
- Adingabe horienenganako jarrera gizatiarragoa sustatzea gizartearen, horien egoerarekiko enpatia eta hurbiltasuna sustatuz eta elkartasun eta kidesun kontzientzia hedatuz.
- Beldurrari, aurreiritziei eta etiketa kolektiboari indarra kentzen saiatzea, eta pertsona horiekiko giza sentsibiltatea sustatzea, geure seme-alabak izan litezkeela irudikatuz eta gogoratuz.

Baliabideak: borondatezko familiek hainbat baliabide izango dituzte, besteak beste: talde profesionalen laguntza, talde hauen bisitak, telefonoa eta posta elektronikoa, Interneteko foro pribatua, ikastaroak eta argitalpenak...

Interesaturik bazaude, [www.izeba.org](http://www.izeba.org) webgunean begiratu edo gizarte zerbitzuetan galdetu dezakezu. ■



## Gure herriko gizarte zerbitzuak ezagutzen


Ongizate lan-taldearen eta Iker Uson herriko udal gizarte langilearen eskutik, Udalak eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinen artean dauden gizarte zerbitzuak aurkezteko hitzaldi irekia antolatu zen maiatzaren 9an. 15-20 lagunek hartu genuen parte, eta herritarrek zituzten kezkei erantzuna ere eman ziek Ikerrek. Legealdi honetan, lan-taldearen dinamikaren barne, ongizateko lan-taldea sortu zen. Lan-talde honen ustez, herritarrek ez dituzte orokorrean gizarte zerbitzuak ezagutzen, eta horregatik, erabaki zen aurtan hobeto ezagutu zitzaten, zenbait ekimen antolatzea. Ekimen horien artean antolatu da hitzaldia, eta aurrera begira ere, ekimen gehiago egiteko asmoa dago; beraz, adi deialdiei!



# Amets bat, izan nun...

Oraingo ale honetarako haurrak eta ametsak hartu ditugu hizpide. Nonbait irakurri genuen, Ametsetatik nekez bizi daiteke, baina amets egin gabe are nekezago. Horren haritik, zera etorri zaigu burura: Zeintzuk dira Itsasondoko haurren ametsak? Zer egingo dute ametsak betetzeko? Horrelaxe planteatu dizkiegu galderak: Adi irakurri erantzunak, aholku interesgarriak ematen dituzte eta.

1. Ametsik ba al duzu? Zein?
2. Ametsen bat egia bihurtu al zaizu?
3. Zer egin behar da amets bat egia bihurtzeko?



**Angel, 12 urte**

1. Bai. Nire ametsa pilotaria izatea da.
2. Bai. Txakur bat izatea.
3. Nire ustez, asko saiatu behar da.



**Udane, 9 urte**

1. Bai. Nire ametsa nire gelako lagun guztiekin gatzelu batean bizitzea da.
2. Bai! Portaventurara joan nintzenekoa.
3. Ilusioa behar da.




**Izaro, 9 urte**

1. Bai. Nire ametsa al baitaria izatea da, animaliak asko gustatzen zaizkit eta.
2. Oraindik ez.
3. Nahi duzun horretan asko pentsatzea da onena.



**Garazi, 7 urte**

1. Bai. Txakur bat izatea gustatuko litzaidake.
2. Oraindik ez.
3. Txintxo-txintxo portatu behar da horretarako.



**Sara, 5 urte**

1. Bai. Ileapaintzailea izan nahi dut.
2. Ez, oraindik ez.
3. Asko saiatu behar da.



# Selektibitateari ez!

Ekin Euskal Eskola Nazionalari

Urtero bezala, aurten ere iritsi zaie bigarren batxilergoa bukatu duten ikasleei selektibitateari aurre egiteko garaia. Froga honen inguruan desadostasun handiak egon izan dira beti, eta oraingoan, sare sozialak denon eskura dauden honetan, ikasleek inoiz baino ozenago helarazi dizkigute aurkako argudioak.


Ikasleek hiru egunetan egiten diren azterketetan, batxilergoko bi urteetan zehar ikasitako eduki guztiak jarri behar izaten dituzte paper gainean, presiopean galdera gutxi batzuei erantzuna emanez eta ikasgaien memorizazioan soilik oinarrituz. Gainera, eduki hauek sistema kapitalista eta patriarkalak biziraun dezan inposatzen dizkigutenak dira, curriculum arrotz batek bildutakoak, sortu nahi dugun eskola euskaldun, ezkertiar, feminista... zerikusirik ez duena, alegia.

Pertsonek garapenak eta ikasleek bizitzarako ikasleak duen garrantzia albo batera utziz, froga honetan lorturiko emaitza soilik izango da ikasleen etorkizuna bideratuko duena, ikasle akritikoak, sumisoak eta konpetitiboak sortuz.

Froga hau aplikatzen den azkeneko urtea izango da, datorren urtean LOMCE eredua aplikatuko baita. Baina, ez ditugu ahaztu behar, eredu berri honek ekarriko dizkigun errebalida guzti horiek.

Beraz, selektibitateari eta ildo beretik joango diren ondorengo ebaluazio sistema arrotzei ezetz esaten diegu. Honek guztiak ez baitie ikasleen hezkuntza beharrei aurre egiten; horren odez, ikasleek eskubideak urratzen dituen hezkuntza sistema bat islatzen du.

Honen guztiaren aurrean, ikasleek azterketa basati hauek alde batera utzi eta geureak diren jakintza eta gaitasunak lortzeko beharra ikusten dugu, egungo ebaluazio sistema deuseztatuz. Ekin diezaiogun, bada, geroa marrazteari! ■



# Auzolana, proiektu berriak begi bistan

Kaixo, bizilagunoi!

Plazako zuhaitz ertzetan egindako auzolanaren ondoren, zapore gazi-gozoa geratu zitzaigun; gazia, behar izan genuen denbora eta ahalegin fisikoa uste baino handiagoa izan zelako, eta gozoa, parte hartu genuenontzat lan aberasgarria izan zelako, eta adiskide berriak, garapen pertsonala e.a. izan genituelako.

Akatsetatik ikasiaz eta sentsazio onetan oinarriturik, bat-batean hasi zen talde honek beste talde antolatuago bat sortu du, aurrerantzean sortu daitezkeen proiektuei –zailtasun txikiagokoak– auzolanekin ekin ahal izateko.

Euskal Herrian egonik, beste modurik ez zegoenez, lehenengo gauza afari bat egitea izan zen.

Whatsapp-eko taldea sortzea erabaki genuen, lanei buruz jakinaren gainean egoteko eta elkartu ahal izateko. Herrian bueltatxo bat emateko ere geratu ginen, eta egiteko gai izango ginen lanen zerrenda bat prestatu genuen. Talde hau ez da sortu auzolanak geuk bakarrik egiteko; edonor sartu daiteke talde honetara, bere disponibilitatearen arabera edo egin behar den lanari buruzko interesa duenean. Talde honen asmoa da proiektuak dinamizatzea, eta behin antolatu ondoren, guztiak gonbidatuko zaituztegu auzolan horretara. Probatuko duzuelakoan gaude.

Hurrengo lanak: frontoiko barandako leku arrisurtsuenak sare batez ixtea, erorketak saihesteko, eta haurrentzako parkeko zorua berriz jartzea, metalezko marko batzuen bitartez, mugitu egiten delako. ■



## txirrindu elektrikoak

**21** Agendaren inguruan eta bigorriko lanak hastear dardela aprobetxatuz, eta bizikleta garraioa alternatiba azkarragoa eta osasungarriagoa dela ikusita, Udalak bizikleta garraiobide bezala sustatu nahi du, eta zehazki, bizikleta elektrikoak. Bizikleta mota honek bizikleta normal baten arintasuna dauka, baina azkarragoa da, eta ahalegin txikiagoa eskatzen du, kontsumo energetiko oso baxuarekin. Hainbat bizikleta dendeekin harremanetan jarri gara, eta azkenik, Zugaitz Txirrinduak-ek eskaintza berezia egitea onartu du.

Herriarrek probatu dezaten bat ekartzea erabaki du, mota honetako bizikleta baten gainean pedalei eragitean zer sentitzen den probatzeko.

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) urte garai honetan atera ohi dituen diru-laguntzen (%25 gutxi gorabehera) zain gaude mota honetako bizikletak erosteko. Era berean, EEEren diru-laguntzari erantsirik, Zugaitz Txirrinduak-ek %15eko deskontua eskaintzen digu dendako artikuluetan bizikleta jasotzeko garaian, eta kasko bat opari. Udalak ere 50 euroko diru-laguntza emango die



lehen bost bizikletak erosten dituztenei.

Geroago egingo dugu deia bizikleta hau Itsasondon probatzeko. Hainbat modelo daude aukeran. Ezingo bazenu data horietan etorri, adierazi udaletxean, eta aurkituko dugu moduren bat. Probatzera etor zaitezten aholkatzen dizugu, erosteko asmoa izan zein ez. ■



# Ama, nik handitan Youtuberra izan nahi dut

*Ze suhiltzaile, futbolari, mediku, irakasle eta ze kristo...  
nik Youtuber famatua izan nahi dut.*





**G**ogoratzen zarete txikiak ginenean, eta handitan zer izango ginen amesten genuenean? Horiek aspaldiko kontuak dira, eta badirudi, gaur egun hori bigarren plano batera pasatu dela. Hala ere, oraindik, ume batzuk amesten dute abeslari famatu bilakatzeko aukerarekin, edota aktore... Baina, gaur egun, umeen artean geroz eta indar gehiago hartzen ari da handitan Youtuber izateko asmoa.

Baina, zer da Youtuber bat? Seguruena, zuetako askok youtube makina bat umorezko bideo ikusi dituzue, edota bideo klipak, parodiak, tutorialak... Azken finean, Youtuber bat da, Youtube-ra bideoak igotzen dituen pertsona bat. Mota askotako perfilak ditugu Youtuberren artean; banan-banan batzuk desberdinduko ditugu.

**Parodia:** Youtube ben ikusi ditzakegun bideo asko parodiak izaten dira. Hau da, pelikula, serie, bideo-klip, abesti edo norbaiten irudiaz baliatzea umorea sortzeko; bai gauzak exajeratuz, sarkasmoa erabiliz originala guztiz desbirtualizatuz... jendeari barre egin arazteko. Adibide bat dugu **CollegeHumor** kolektiboa eta Gotye abeslariaren parodia bat. Kolektibo honek modan jarri diren serieak, abestiak, filmak e.a. parodiatzen ditu, jendeari irribarre sortzeko.

**Esketxa:** Jende askok esketxak egiten ditu, Interneten famatuak izateko. Edozein istorio asmatzeko gai dira internauten kuriositatea erakartzeko. Adibide gisa **EIRubiusOMG** daukagu. Pertsonaia hau oso famatu bihurtu da YouTube bere tontakeriak eta bere bideojoko esperientziak filmatuz.




**Kritikak:** Youtube ber asko kritikak egiteko asmoz eman ziren ezagutzera. Adibide on bat da **Angry-JoeShow**. Estatu Ba-



tuetako gazte honek bideojoko zaletasun handia du, eta behetik gora aztertzen ditu arrakasta handia lortu duten joko guztiak, inork baino lehen. Fama handia lortu du Interneten, gehienbat jokoak garatzen dituzten enpresei egindako kritikengatik. Bere filosofia da bideojokoak dauzkaten gehiegizko prezioak kritikatzeko, eta adieraztea prezioak jokoaren kalitatearen eta iraupenaren arabera izan beharko lukeela.

**Tutorialak:** Youtube eta bere youtube berrak beti izango ditugu hor edozertan laguntzeko. Hala nola, laguntza behar badugu, seguruena bideotutorialen bat izango dugu eskura gure arazoak saihesteko. Denetik dugu Interneten: dantza tutorialak, gitarra jotzekoak, argazki konposaketak, sukaldoko errezetak... Adibide gisa, **SPOKE** dantzari belgiarra, bere Tektonick dantza estiloa erakutsiz.



Youtuberretan abeslari asko ezagutu ditugu. Esate baterako, **Pablo Alboran** edo **Reno Renardoren** fama asko igo ziren Youtube-ri eta beraiek egindako bideoei esker. Youtube makina bat posibilitate ematen duen leiho soziala da. Baina, komertzial gisa ere erabiltzen da; adibidez, enpresa multinazionalak youtube erabiltzen dute: beraien propaganda eta beraien iragarki bereziak (telebistan ikusten ez dien horietakoak) emititzen dituzte, Interneten famatuago bihurtzeko.

Argi dago zer den Youtube, denok ezagutu dugu dagoeneko eta beti zerbait ikusi dugu hor. Baina, azken finean, zer da Youtuber bat? Hitz gutxitan, youtube-n eta Interneten fama handia duen pertsona edo taldea.

Eta zergatik izan nahi dute Youtuber? Oso erraza. Youtube sare sozial bat da, eta sare sozial guztiak bezala, bozkatu dezakezu komentarioa edo bideoa gustatu zaizun edo ez (like/dislike). Beraz, Youtuber batek zenbat eta "like" gehiago eta bisita gehiago eduki, bere bidean gero eta famatuagoa da, eta horren ondorioz, bideo batengatik famatu bihurtzen da eta dirua irabazten du beste bide batetik. Azken finean, enpresei asko gustatzen zaie Interneteko arrakasta erabiltzea, beraien produktuak promozionatzeko Youtuber hauen irudia erabiliz.

Youtuber bat izan daiteke pertsona berezi, friki, normala edota harroa. Baina, bere eginkizun nagusia da bideoen bitartez zer egiteko gai den pertsona hori. Azken finean, berak konpartitu nahi du mundu guztiarekin iritzi bat, abesti bat, umorea, ezagupenak... non beraiei esker asko ikasten dugun eta momentu oso onak pasaratzen dizkiguten.

Beraz, aitak, amak edo seme-alabek Youtuber izan nahi badute, lasai, irtenbide asko dituen lanpostua baita. :)

# Itsasondo, isats-ondo?

*Hamarkada gutxitan bizitzeko ohiturak zeharo aldatu dira gure herrian. Baserriek bizileku eta lantoki izateari utzi diete kasurik gehienetan, eta nekazaritza zein abeltzaintza ia ikusezin izatera heldu dira. Gure arbasoek izena jartzen zieten zapaltzen zuten lurri, aterpetzat zituzten bizilekuei, urrutira antzematen zuten orori.*



**A**biaduraren abiaduraz bizi garen honetan, ordea, gure inguruko mendi, larre, iturri eta haranek izena dutela ahazten dugu maiz, gure izen-abizenen, zein, herri izenen jatorria bertan dela oroitu gabe. Aipaturiko izendapen horiek guztiak galtzeak, sustrairik gabeko herri izatera kondenatuko gintuzke. Jakintza hau aztertzeaz arduratzen da toponimia.

Toponimia toponimoez ari den hizkuntz diziplina da. Eta galdetuko duzue: Zer da toponimo bat? Hitzez hitz euskaratuko bagenu, leku-izena (hots, grekeratik: TOPOS = leku eta ONOMA = izena). Hortaz, leku-izenen jatorriaz eta etimologiaz arduratzen den linguistika zientziaren arlotzat hartuko dugu toponimia. Kasu gehienetan, inguruaren deskribapena egiten du, eta tokian tokiko informazio ugari eskaintzen digu; horrela, abeltzaintzari (Astabide, Usaetxe), hidrografiari (Zapata-erreak, Bostiturrieta) edo orografiari (Aranguren, Lakagain) erreferentzia egiten dioten toponimoak aurkitzen ditugu. Era berean, ingurune bateko floraren berri ere eman diezagukete leku-izenek; adibidez, zuhaitz espezieen (Madariaga, Intxaurre, Sagastitxo, Pagobakarra) zein landare belarkaren (Garagartza, Zelaieta) inguruko informazioa.



Itsasondo izenaren jatorriak azken adibide honekin izan dezake zerikusia, dirudienez, isatsa izeneko landarearen presentziarekin baitu lotura. Izenaren osagaiak, isatsa landarea eta -ondo atzizkia dira. Herriaren izenean agertzeaz gain, baserri baten izenean ere agertzen da: Itsasaga.

Isatsa (Latinez, *Cytisus scoparius*; Gaztelaraz, Retama negra), 2 metro edo gehiagoko zuhaixka oso adartsua da, eta Europa zabalean zein Asiako mendebaldean agertzen den arren, bere banaketa-area Euskal Herriko iparraldera heltzen da, baita Itsasondora ere. Pagadi, harizti eta karraskadien soilgunetan, ezpondetan, landare-hesietan eta bide bazterretan bizi ohi da, 200-2.000 metroko altitudetan. Isasti izeneko komunitate dentsuak ere osatzen ditu, eta horietan isatsa landare nagusia den arren, espezie laguntzaile hauek ere agertzen dira: gorostia (*Ilex aquifolium*), otea (*Ulex gallii*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*), elorri beltza (*Prunus spinosa*), garoa (*Pteridium aquilinum*), e.a.

Fabaceae familiako zuhaixka honen adarrak berdeak dira, ertz angelotsuekin. Bi hosto mota ezberdin ditu: behealdeko adarretan, hosto trifoliatuak, txortendunak eta galkorrak; goialdeko adar antzuetan, ordea, hosto unifoliatuak eta eseriak. Lore horiak ditu, hostoen galtzarbean jaiotzen direnak, banaka edo binaka, adarren luzera osoan zehar. Loraketa garaia apiriletik uztaiera bitartean izaten da, eta hauek ernaltzen direnean garatzen diren fruituek —lekak— heltzen direnean beltz kolorea hartzen dute.

Landare fanerofito honek garrantzi nabarmena du gure lurraldean, leku-izenenetan duen presentziagatik, erabilera anitz baititu. Adarrak lehortu ostean, erratzak egiteko erabili izan da urteetan, eta hemen diko datorkio euskarazko izen espezifikoak: erratza edo "isatsa". Bestalde, sendabelar bezala ere erabiltzen da, loreen propietate diuretikoa dela eta. ■



## 22. Ibilbidea

# Olaberria-Lazkao-Olaberria

**O**laberriko plazatik eta beheko bidegurutzera iristerakoan, erdiko bidea hartuko dugu go-runtz. Aurrera goazelarik, eskuinera Agerre eta aurreraxeago Berdillari baserriak utziko ditugu. Aurrera jarraituta, Aranguren baserrira iritsiko gara. Azken hau pasatutakoan, maldan behera joko dugu, berrituta dagoen bidexkatik, eta sei langa pasatu eta gero Amoskategi nekazalurmora iritsiko gara. Hemendik aurrera, bide nagusia eta erreka jarraituz, zenbait baserri ondotik pasatuko gara, Telleri, Borda nekazalurmora (haragiaren salmenta zuzena), Bil-

dotxa, Etxetxo, Estensoro, Etxe Zuri sagardotegia, Lazkaora iritsi arte. Herria zeharkatu plazaraino eta futbol zelairuntz abiatuko gara, zentral elektrikoa pasatu eta gero ezkerreko bideari heldu diogu, Arramendi baserriruntz. Hemen, baserriaren aurretik pasatu eta eskuinera hartuko dugu, etxearen atze-kalderuntz. Bertan, baserriko iturriaren aldamenetik pasa, ezkerrera egin eta goruntz joango gara. Adar nagusiari heldu eta goraka jarraitu behar dugu. Aldapa bukatutakoan, ezkerrera hartu eta Olaberria iritsiko gara. ■

**Iraupena: Ordubete eta 45'**

**Ibilbidea:**  
**Olaberria-Lazkao: ordubete**  
**Lazkao-Olaberria: 45'**







01 Olaberriako enparantza



02 Berdillari baserria



03 Aranguren baserria



04 Amuskategi nekazaturismoa



05 Borda nekazaturismoa



06 Aldaolako iturria



07 Ertzile azpi baserria



08 Lazkao



09 Arramendi baserria

Insausti berri baserria 10



## Gure Esku Dago

Zer da gure esku dago?

GURE ESKU BIDEA. Erabakitze eskubidearen aldeko gizakatea. 2014ko ekainaren 8an Iruñea eta Durango artean dauden 123 km-ak lotu dituen asmoa eta nahia.

Euskal Herrian bizitzen gabiltzan garai berria baliatuz, elkarlanean urratsak emateko unea dela uste dugu, eta protagonista nagusia HERRITARRAK izan behar duela.

Ekimen kolektiboak aurrera eramanez, pentsaera ezberdina duten pertsonen arteko elkargunea sortuz eta honako hau aldarrikatuz:

- Herri gisa geure etorkizuna erabakitze eskubidea dugula.
- Erabakia hartzea herritarroi dagokigula.

Eskozian eta Katalunian bezala, erabakitze asmoa bultzatzea da gure nahia.

Euskal Herria nazioa dela eta herritarrek direla protagonista nagusiak.

150.000 lagun elkartu ginen; eta gu herri txikia bagara ere, hor egon ginen Itsasondoko 100 bat herritarrek, haur, gazte eta heldu.

SINISTEN DUGULAKO, GURE ESKU DAGOELAKO!



Itsasondorrek Giza-Katean



## Guraso elkartea

**A**urtengo Goierriko eskola txikietako topaketa Zerainean izan zen Maiatzaren 10ean. Bertan izan ginen Itsasondoko guraso eta haurrak Gabiariarekin, Olaberriakoeekin, Ezkio-Itsasokoeekin eta Zeraingoeekin batera. Ederki pasatu genuen! Datorren urtean Gabiariakoei egokituko zaie topaketa hau antolatzea. Beraz datorren urterarte!!



Argazki familiarra



## Urkiko maiatzeko jaiak

**M**aiatzak 3an, Gurutze Deunaren egunean, eman zitzaizen jaiak hasiera. Meza ondoren hamaiketakoa, jangela puntaraino bete zelarik, eta eguerdian bazkaria egin zen. Arratsaldean XXXI. Mus Txapelketa ospatu zen, 9 bikotek parte hartu zutelarik eta Miguel Gorostizu eta Antonio Etcheberria suertatu zirelarik txapelak. Ondoren lagun arteko afaria egin zen elkarteak, jangela bete egin zelarik eta ondoren Laja eta Mikel trikitilariarekin erromeria goizalderarte.

Maiatzak 4 igandean, eguraldia lagun, jende asko bildu zen bai meza, hamaiketako eta bazkaria Jose Luis Laja eta Andoni Larrañaga trikitilariarekin lagundurik.

Arratsaldean XXXI. Toka Txapelketa jokatu zen, guztira 29 partaide izan zirelarik. Gizonezkoetan ANTONIO ETXEBERRIA izan zen irabazle eta emakumezkoetan ANA MARI ARZA.

Iluntzean erromeria egin zen egun guztian zehar trikitia jotzen aritu ziren Jose Luis Laja eta Andoni Larrañaga trikitilariarekin.

Urkiko jaien aldeko Antxumearen zozketa egin ondoren, zorte duna, Anjel Lasa izan zen.

Horrela agurtu genituen Iraila bitartean Gurutze Deunaren Jaiak.

Animatu eta hurbildu Urkira Iraileko jaietan.



Urkiko erromeria

## Mintzalaguna

**M**artxoaren 29an herriko Mintzalagun taldekoek Legorretako sagardotegira irteera egin zuten. Plazan elkartu, eta joan-etorria giro ezin hobean oinez egin zuten, sagardoa, euskara eta kirola uztartuz. Animo eta jarraitu horrela!



Ekainaren 6an, ostirala, Mintzalagun taldekoek kurtsoari bukaera emateko azken saioa egin zuten. Bertan, urteko balorazioa egin eta datorren urterako urratsak zehaztu zituzten. Esan beharra dago, orokorrean partaideek egindako balorazioa ona izan zela, eta datorren urtean ekintza honekin aurrera jarraitzeko asmoa agertu zutela.



( lorezaintza gomendioak )

## Hiriko baratzak

Baratza txiki bat egiteko ez da lur sail handirik behar. Loreontzi batzuekin eta espazio txiki batekin ortu txiki bat sortu daiteke terrazan edo balkoian, eta ortuari osasuntsu eta zapoetsuez gozatu.

Kasu honetan, lehenengo eta behin kokapen ona aukeratu behar da, eta gure ortua gutxienez 6-8 orduz eguzkitan dagoen terrazan edo balkoian jarri.

Hurrengo urratsa edukiontzia edo loreontziak hautatzea da. Landatu nahi denaren arabera, batzuk ala besteak erabiltzea gomendatzen da. Esate baterako, jardineria batean perrexila, letxuga batzuk eta belar usaintsu bat landatu daitezke, baina tomate edo kalabazin landareek lur gehiago behar dute, sustraiak garatzeko gutxienez 40 cm-ko sakontasuna izatea komeni baita.

Garratzitsua da baita ere drainatze on bat ziurtatzea, eta substratua gehitu aurretik, 2cm-ko buztin geruza edo harri txikiak jarriko ditugu.

Ondoren, bete egiten da, kalitate oneko lur emankorrez (½), zizare humusaren ongarriz (¼) eta perlitaz edo harea larritz (¼) egin-dako nahastearekin.

Gure landareak ongarrizeraoan, ez dugu ahaztu behar jateko erabiliko ditugula; beraz, ongarrri kimikoak saihestu behar dira, eta guanoaren moduko ongarrri naturalak erabili.

Ureztatzea ureztontziarekin egin dezakegu, eta kontuan izan behar da ortuan landatutakoak baino maizago ureztatu behar dira. Ortuari dagokienez, tomateak, letxugak, berenjenak eta piperrak landatu daitezke, adibidez.

Belar usaintsuen artean: oreganoa, albaka, perrexila, menta, tipulina. Eta marrubi gozo eta zapoetsuak ere landatu ditzakegu.



**Maixabel Garmendia**  
**Izadia Loradenda. BEASAIN**  
**943 88 14 40**

( errezeta )

## Txerri hanka block-a ziza eta patata kremarekin

### Osagaiak:

2kg txerri hanka  
300gr ziza  
2 tipula  
2 baratxuri  
500gr patata  
Piperrak  
Gatza  
150ml ardo txuri  
Ezkaia edo tomilloa  
Perrexila  
70gr gurin

### Prestakuntza:

Txerri hankak gatz eta piperbeltz apur batekin egosiko ditugu, bigundu eta hezurretik erraz askatu arte. Salda gorde egingo dugu.

Tipula zati txikietan moztu eta ondo erregosi ondoren ziza eta ezkaia (tomilloa) gehituko dizkiogu.

Dena ondo erregosita dagoenean, txerri hankak gehitu eta salda pixka bat botako dugu. 10 minutuz irakiten utziko dugu dena murriztu arte.

Molde batera atera eta hoztu ondoren block-etan moztuko dugu. Zartagin batean lau aldeetatik gorrituko dugu; azken aldea denbora gehiagoz utziko dugu, barrutik berotu dezan.

Patata krema egiteko, patatak egosi eta ura kendu ondoren gurina eta gatza gehituko diogu. Nahi izanez gero, merkatuan aurkitu dezakegun edozein olio usaintsu gehitu diezaiokegu; onddo, trufa... dena ondo nahastu.

Amaitzeko, platerean aurkezteko, azpian patata purea jarriko dugu, gainean hankekin egindako block-a eta azkenik ezkaia (tomilloa) eta piper erregosia jarriko diogu apaintzeko.



**Asier Arbilla**  
**Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL**  
**www.arbeletxe.com**  
**973 361 634**

AY 63562

Góðan sónnu! Oceanen

AB

Drömfekliteten

AB

Maja Marie Aikt / BAYIAN

PER PATTISSON: Jæg forðannet tidsens elv

85

Frida A. Sigurðardóttir: Mens natten går Rhodós

Frida A. Sigurðardóttir: Mens natten går

ROTHSCHILD, ELIZABETH

HENDAG I ØSTERBOTTEN. Alin Thant

ENGILAR ALHEIMSSINS

87

HENDAG I ØSTERBOTTEN. Alin Thant

85

Sjón SKUGGA-BALDUR

DOBRIT WILLUNISH: SPANG /

Per Ottob  
Sævi  
Engel  
Anders  
Anders

ANETI TUORI: POJANNA

1982

Einar Már Guðmundsson: Unhæfela engla

William Heinemann  
Det gode håb

BIBLIOTHECA (25.2k)

## Oharrak



### Debekatuta kaleko katuei jaten ematea

Arkakusoak eta usain txarrak direla eta, kexa ugari jaso dira, eta horrelakoak ekiditeko, arren eskatzen dizuegu, kalean dabilten katuei ez janik emateko.

### 2015eko egutegiaren argazki lehiaketa

2015. urteko egutegirako argazkiak biltzeko deialdia zabaldu nahi dizuegu. Gaia "Itsasondoko txokoak" izango da. Argazkiak aurkezteko epea urriaren 3ra arte izango da. Oinarriak [www.itsasondo.net](http://www.itsasondo.net) webgunean izango dituzue eskuragarri. Saria: Gironako La Seu D'Urgell herrian bi lagunentzako afaria Arbeletxe jatetxean eta gaua landetxe batean.

### Gorotzak ez jasotzeagatik salaketa

Ohar honen bidez jakinarazi nahi dizuegu, 18. artikuluan oinarrituta eta udal honetan indarrean dagoen Txakurren ordenantzen arabera, txakur gorotzak ez jasotzeagatik salaketa jarri ahal izango duela herriko edozein bizilagunek. Eta, indarrean dagoen araudi honen arabera, 30,05€ eta 300,51€ bitarteko multa ezarri daitekeela.

### Zubipe aldikariaren ale bat falta

Udaleko artxibategirako 2003ko maiatzeko ZUBIPE aldikariko 2. alea falta zaigu. Norbaitek etxean izango balu, udaletxera gerturatzea eskertuko genioke. Kopia atera eta originala bueltatuko zaio.

### Langilen baten kontratazioa

Lan eta zerbitzuko kontratu baten bidez, egun batzuetarako langile bat kontratatuko da eskola eta haurreskolako garbiketa berezia egiteko. Baldintza web gunean edo Udaletxera gerturatuta azalduko zaizkizue. Izena emagteko azken eguna uztailaren 18an izango da.

#### UZTAILAK

- 4-5 :** Garagardo festa Arbelaitz elkarteak antolatuta.  
**14 :** Lurralde Antolamenduko lan-taldearen bilera.  
19:00etan udaletxean.  
**15 :** Ongizate lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.  
**16 :** Herri Bizitza lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.  
**18 :** Udako kanpaina amaiera.

#### ABUZTUAK

- 11 :** Txato  
**14 :** Andra Mari jaietako bezperako afaria,  
Bizi Nahi jubilatuko elkartearen.  
**15 :** Andra Mari jaiak.

#### IRAILAK

- 8 :** Lurralde Antolamenduko lan-taldearen bilera.  
19:00etan udaletxean.  
**9 :** Ongizate lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.  
**10 :** Herri Bizitza lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.  
**13-14 :** Urkiko jaiak .  
**19-21 :** Itsasondoko jaiak.  
**26 :** Pintxo potea.  
**28 :** Jubilatuko eguna, bazkaria.

## Telefono interesgarriak



**Udaletxea** 943 881 170  
• **Gizarte Langilea**  
• **Udal Arkitektoa**  
• **Epaitegia**

**Haurreskola** 943 164831  
**Herri Eskola** 943 887704  
**Arbel-Aitz Elkartea** 943 881339  
**Lurdes Janari Denda** 943 885236  
**Arrastoa Botika** 943 882148  
**Medikuarenean Txanda Hartzeko** 943 805800  
**Kaxintane Taberna** 606 756551  
**Nautiko Taberna / Izaskun Hotela** 943 880012  
**Izaskun Ileapaindegia** 943 160285

**Sasietea** 943 161555  
**Traste Zaharrik** 943 161590  
**Taxi (Ordizia)** 943 881486

## itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria (( 25. zk )) Ekimena-Uztaila 2014

### Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga  
Ainhua Barandiaran  
Aranzadi Elkartea  
Axier Arbilla  
Axier Bazaga  
Belen Mendizabal  
Danel Etxeberria  
Eskolako haurrak  
Erkuden Mendizabal  
Haizea Arruti  
Haurreskolako Hezitzaileak  
Iker Mendizabal  
Iker Usón  
Iratxe Ibarra  
Itsasondoko Gazte Taldea  
Iturritxiki Guraso Elkartea  
Jone Etxeberria  
Maite Laso  
Maixabel Garmendia  
Mikel Mendizabal  
Rosi Noguera

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldikarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldikaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70  
[itsasondo2.0@itsasondo.net](mailto:itsasondo2.0@itsasondo.net)

Lege gordailua: ISSN:  
SS-297-2010 2171-5572

**Gipuzkoa**  
BERRIA

**GOGORARAZTEN DIZUEGU  
HURRENGO ALEA  
UZTAILEAN IZANGO  
DUZUTELA ETXEAN**

